

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Asteazkena, 2013ko otsailaren 20a. IX. urtea. 2.548. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Hamar urtetan isiltzea lortu ez dutena

Gaur hamar urte betetzen dira Juan del Olmo epailearen aginduz Guardia Zibilak 'Euskaldunon Egunkaria' itxi zuenetik; hala ere, euskarazko kazetak ez du etenik izan

Urte askotako lana, gogoia eta esperantza bukatu izanaren sentsazioa izan zuela ekarri du gogora Martxelo Otamendi 'Egunkaria'-ko zuzendari ohiak **o4-5**



Igandean izango da Guhau elkarteak antolatutako Txakurkrosa

Tolosako Trianguloa plazan hasi eta bukatuko da 11,5 kilometro dituen lasterketa; 11:30ean hasiko da eta gaztetxoentzat ere prestatu dute ibilbidea **o6**

Tolosako Udalak herri baratzeak jarriko ditu lurreamendin

Muñoa fundazioarekin sinatu du udalak zortzi urterako hitzarmena, eta martxoan jarriko dute martxan proiektua **o2**

Kontsumo taldea sortzeko bilera bihar, Ibarran **o2**

→ **Euriteen ondorioak.** Azken berrogeita hamar urteetako eurite handien eraginez kalte handiak izan dira eskualdean. Ikusgarriena, Abaltzisketako lartza baserrian –irudian– gertatu da, lur jauzi batek eraikinaren kontra jo duenean. Leaburutik Gaztelurako bideak, berriz, lehendik ere hondoratua bazegoen, beste bi haustura izan ditu asteburuan. Herri txikietako udalak mendiak eta bideak mantentzeko erakundeen babesa eskatu dute. **o7**

• **Saria:**
Elketa jatetxean
bi lagunentzako
otordua

Elketa Jatetxea

San Miguel bailara, 2
Hernialde 943 65 21 16
www.elketa.com

• Argazkiak nora eta noiz bidali:
thargazkiak@hitza.info helbidera **martxoaren 3a** bitarte
Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.



Inauterietako
Argazki lehiaketa



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

inauteriak '13

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira
Inauterietan tolosaldea.hitza.info webgunean!

Herri baratzeak martxan jarriko ditu udalak, lurreamendiko lursailetan

Lursailen jabetza duen Muñoa fundazioarekin hitzarmena sinatu du, horretarako, Tolosako Udalak

Itzea Urkizu Tolosa

Erabilera publikorako herri baratzeek gozatu ahal izango dute laster tolosarrek, Baratzte Parkea egitasmoari esker. Proiektua aurrera eraman ahal izateko, udalak hitzarmena sinatu du Muñoa fundazioarekin; baratzeak jarriko dituzten lursailen jabea da fundazioa.

Tolosako Udalak eta Kutxako Ekogune fundazioak 2012ko uztailearen 12an abiarazi zuten egitasmo hau. Aurre-hitzarmen bat sinatu zuten bi eragileek, eta herri baratzeen egitasmoa zehazteko ardura hartu zuen udalak. Ekogunek, berriz, honako konpromisoa hartu zuen: proiekturako 80.000 euroko diru poltsa gortetzea.

Gipuzkoan baratze ekologikoen sarea sortzeko egitasmoa da, Kutxako Ekogune fundazioaren Baratzte Parkea. Tolosako Udalak ere bat egin du helburu hauekin, eta hainbat aukera aztertu dituzte azken hilabeteotan, baratze



Ibai Iriarte alkatea eta Muñoa Fundazioko Jesus Mari Arrieta. HITZA

parkea lekuri egokienean kokatzeko. Iurreamendiko lursailak aukeratu dituzte, azkenean.

Guztira, 7.000 metro karratuko lursail eremua bideratuko dute, herritarren erabilera publikoko baratzeentzako. Migel Muñoa Fundazioarena da lursaila, eta beraz, lankidetzak hitzarmena sinatu du Tolosako Udalak, fundazioarekin.

Hitzarmenaren ondorioz, Muñoa Fundazioak, gutxienez, zortzi urterako utziko dio Iurreamendiko lursaila udalari.

Halaber, Kutxako Ekogune fundazioak 70.000 euroko diru la-

guntza emango dio Tolosako Udalari, Baratzte Parkea egiteko. Bere aldetik, udalak 4.290 euroko urteko kuota ordainduko dio Ekogune fundazioari, datozen zortzi urteotan.

Proiektua abiarazteko prest

Tolosako Udalak jakinarazi duenez, udaleko azken Hirigintza Batzordean, herri baratzeak martxan jartzeko beharrezkoa izango den obra esleitzea onartu zuten.

Horrela, beraz, martxoko lehen astean gauzatuko dute esleitzea, eta herri baratzeen egitasmoa hastear izango da.

Kontsumo taldea sortzeko bigarren saioa izango da bihar

Lehen saioan ez zuten jende nahikoa bildu, baina jada 15 familia elkartu direla azaldu dute arduradunek

I. Urkizu Ibarra

BasHerri taldeen mugimendua martxan jarritako kontsumo taldeen bigarren bilera izango da, bihar, 18:30ean, Ibarra kultur etxean.

Aurretik ere, BasHerri mugimenduko arduradunek lehen saio bat antolatu zuten: «Lehen saio hartan, gure asmoa kontsumo taldeen funtzionamendua azaltzea izan zen. Jende gutxi bertaratu zen, ordea, kontsumo talde bat osatzeko», azaldu du Pedro Alberdi arduradunak.

Lehen erantzun haren aurre-

an, Ibarra eta inguruetan kontsumo taldea osatzearen ideia ahoz aho zabaltzen saiatu dira, bai arduradunak, baita taldeko kide izan nahi duten herritarrek ere. «Jendea biltzen saiatu gara, eta badirudi bigarren saio honetarako jende gehiago animatuko dela» azaldu du Alberdik.

Horrela, beraz, bigarren saioan berriro aurkeztuko dute, sasoiaren saioa baserritik sukaldara eramateko, BasHerri taldeak prestatutako egitasmoa. Pedro Alberdik azaldu duenez, bi baserritarrek ere interesa azaldu dute egitasmoan parte hartzeko, eta horren arabera, 15 familia inguru beharko lituzkete taldeak ondo funtzionatzeko: «Badirudi auzoetara eta inguruko herri txikietara iritsi dela berria, eta iritsi ez bada, interesa duen edonor bertaratu dadila, bihar, kultur etxera», nabarmendu du Alberdik.

Iker Karrerak hirugarren egin du Cruce Columbia lasterketan

I. Garcia Landa Amezketta

Iker Karrerak hirugarren egin du Cruce Columbia proban. Hiru etapatan Txile eta Argentina elkartzen dituen banakako lasterketan, amezketarra Max King (3:26:53) eta Francoise D'haene (3:29:47) korrikalarien atzetik sailkatu da, 3:42:57ko denborarekin.

Gustavo Reyes argentinarrarekin gogor borrokatu beharra izan du podiumera igotzeko. Ederki ekin dio, beraz, Iker Karrerak, mendi lasterketen denboraldiari. Emakumezkoetan, Oihana Kortazar mutrikuarra izan da garai-
lea.

Tolosan egindako lau lapurreten ustezko autoreak atxilotu dute

I. Garcia Landa Tolosa

Errenteriatik ertzain-etxeak udaltzaingoarekin elkarlanean, joan den larunbatean 22 urteko gizonezko bat atxilotu zuen, hemezortzi lapurretara egitea leporatuta; horietako lau Tolosan.

Ustezko lapurretak hainbat etxebizitzatan egin zituen, jabeak barruan zeudela; Tolosan egindako lau lapurretak inauterietan gertatu dira. Plastikozko txartel bat erabiltzen zuen giltza bi aldiz biratu gabe zuten atekak zabaltzeko. Atxilotutakoa guardiako epaitegira eraman zuten, eta aldiak aginte judizialaren aurrean agertu beharko du.

@ Zer iruditzen zaizu ekainean berriro inauteriak ospatzeko lagun talde batek egindako proposamena?

Atzo jasotako emailzak:

- Ondo iruditzen zait (%51)
- Gaizki iruditzen zait (%38)
- Berdin zait (%10)

Sartu **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**-ren webgunean eta eman zure iritzia:

tolosaldea.hitza.info

→ Laburrak

'Erretzea hondamena da' hitzaldia, gaur

TOLOSA > *Utzi ke txarrak* egitasmoaren barruan, Asuncion klinikak hitzaldia antolatu du: Erretzea hondamena da. Maria del Mar Castillo alergologoa izango da hizlaria, eta saioa 19:00etan izango da, gaur, Tolosako kultur etxean.

Gaur Laponiako eski zeharkaldiaz saioa Tolosan

TOLOSA > Alberto Agirreazaldegik izango da, gaur, Tolosako Errota eraikineko Antxon Banderes Bidaiairen Txokoa. Iaz Laponian egin zuen eski zeharkaldi baten inguruan hitz egingo du, eta hainbat argazkirekin lagunduko du saioa. Agirreazaldegik bere bloga ere badu: <http://www.blogak.com/ibiltarixanaka>, eta atarian bezala, hitzaldian ere bere esperientzia kontatuko die bertaratuiei. Saioa doakoa izango da, 20:00etan hasiko da.

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKARIAK

Etxeko lanetarako. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume eskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992

Garbitzaileak. Bi garbitzailek, orduka lan egiteko beren burua

eskaintzen dute, eta esperientzia handia dute jardun honetan. Besteak beste, etxeko garbiketari, plantxan, sukaldari, elkarretan lan egiteko prest daude. Bestalde, komunitateak, elkarteak, tabernak eta antzekoak garbitzeko eskaintza egin dute. Autoa badute. Interesatuak, deitu 699 589129 edo

653 729247 telefono zenbakietara.

ESKUALDATZEAK

Taxi zerbitzua Zizurkilen. Zizurkilen, taxi lizentzia eta autoa eskualdatu nahi ditut. Interesa duen edonork, dei dezala 608 57 59 00 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Mundu osoko artistek ahoz kotasunaren plaza bihurtuko dute Tolosa

Intujai Teatrok Ahoz aho jaialdia antolatuko du aurten ere; Tolosan bezala, Ordizian ere izango dira emanaldiak

Julen Telleria Tolosa

Mundu osotik etorritako hamai-ka artistak, ahoz hartuko ditu Tolosa eta Ordizia, Ahoz kotasunaren Nazioarteko Jaialdian. Urtero legez, Intujai Teatro antzerki konpainiak antolatuta, era guztietako istorio, ipuin, kondairak, kantu eta kontuak entzun ahal izango dira, otsailaren 22an hasi eta martxoaren 7an amaituko den Ahoz aho jaialdian.

Kolonia, Mexiko, Uruguai, Kuba, Irlanda, Valentzia eta Errioxatik etorriko dira aurtengo edizioa osatuko duten artistak, eta Euskal Herrikoekin batera, Tolosako hainbat eszenatokitara



Oina oina oina oina oina oina oina. HITZA

eskainiko dituzte euren emanaldiak.

Kalabaza forma duen konstelazio baten bitartez irudikatu nahi izan dute jaialdiko kartela. Horre-

la, ahoz kotasunaren unibertso-tik datozen izarrak azpimarratu, eta sorginkeriaz eta magiaz betetako jardunaldiak izango direla adierazi nahi izan dute.

Euskal Herriko kosta ezagutzeko mendi ibilaldia, igandean

Asteasuko Sagain mendi taldeak antolatuta, Pasaia-Donostiarainoko ibilbidea egingo dute

J. Telleria Asteasu

Euskal kostaldeak eskaintzen dituen paraje eta paisaiez gozatzeko asmoz, mendi ibilaldia antolatu du Asteasuko Sagain mendi taldeak datorren igandean, hilak 24. Pasaia-Donostiarainoko ibilbidea burutuko dute, kostako laugarren etapa osatuz.

Hamasei kilometroko bidea egiteko, lau bat ordu beharko dituztela aurreikusten dute, nahiz eta txangoa egun guztira luzatu-

ko den. Antolatzaileen esanetan, ibilbide ederra izateaz gain, burutzeko erraza da, eta edonork egiteko modukoa.

Goizeko zortzietan Asteasuko plazatik abiatuko dira, eta Amasa-Villabonara jaitsi ostean, trenegingo dute Pasaia-Donostiarainoko bidea. Asteasura itzulera, berriaz, arratsaldean izango dute.

Izen ematea zabalik

Jadanik zabalik da mendi ibilaldian izena emateko epea. Parte hartu nahi dutenek Asteasuko kiroldegian egin beharko dute inskripzioa, bost euroren truke. Epea, hilaren 21a, ostegunera bitarte izango da zabalik.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak, Sagain mendi taldearen web orrialdean dauzka beharrezko xehetasun guztiak: www.sagain.org.

→ Laburrak

Generoa aztergai Umorez jardunaldien barruan

VILLABONA ▶ Bihar, osteguna, Umorez jardunaldien bigarren saioa izango da Villabonako Subijana Etxean. Bertsozaleen artean feminismoaren ezagutza zabaltzea helburu, Jokin Azpiazu Carballo, maskulinitateen inguruko ikuspegien azterketa egingo du, 18:00etatik aurrera. Ondoren, Saioa Cabañas *Gaivilunak* argazkilaria, Emarock egitasmoa aurkeztuko du. Hitzaldien ostean afaltzen geratu nahi duenak, izena aurrez eman beharko du umorez@bertsozale.net helbidean.

Korrika 18ren aldeko bilera izango da, bihar

ADUNA ▶ Korrikaren aurtengo edizioari laguntzeko, bilera herrikoia antolatu dute Adunan. Txulobi elkartean izango da hitzordua, bihar, arratsaldeko 16:15etik aurrera. Bertaratu nahi duenarentzat, zabalik izango dituzte ateak.

Herri batzarra Espainiako banderaren aurka, gaur

AMEZKETA ▶ Espainiako banderaren inposaketari aurre egiteko, dagoeneko hainbat bilkura egin dituzte Amezketa. Behin herri moduan zein erantzun eman hitzartuta, orain, ekitaldi guztiak antolatzeko lanetan dihardute. Horregatik, gaur, hirugarren herri batzarra burutuko dute kultur etxeko areto nagusian, 19:00etan hasita. Herriar guztiak bertara azaltzeko deia luzatu diete antolatzaileek, denen artean ideiak adostu eta antolaketa errazago izan dadin.

Itziarren Semeak eta Skakeitanen kontzertua

ANOETA ▶ Ska doinuekin gozatzeko aukera izango da datorren larunbatean, hilak 23, Anoetako Gaztetxean. Skakeitan talde donostiarrak eta Itziarren Semeak bizkaitarrek kontzertua eskainiko dute 23:00etatik aurrera. Anoetako Gazte Asanbladak jakinarazi duenez, sarreak, bost eurotan salduko dituzte, eta momentuan bertan erosi ahal izango dira gaztetxean bertan.

↓ Ahoz aho 2013

EGITARAUA

■ **Otsailak 22, ostirala.** Carles Garcia Domingo (Valentzia) eta Mercedes Alfonso (Kuba), 22:30ean, Amarotzen.
■ **Otsailak 25, astelehena.** Marisol Cervera (Euskal Herria) eta Pollo Rosa (Euskal Herria), 22:00etan, Amarotzen.
■ **Otsailak 26, asteartea.** Iñaki Carretero (Euskal Herria), 17:30ean, Amarotzen.
■ **Otsailak 27, asteazkena.** Ines Bengoa (Euskal Herria), 17:30ean, Amarotzen.

■ **Otsailak 27, asteazkena.** Barry Manley (Irlanda) eta Pollo Rosa (Euskal Herria), 22:30ean, Otsabin.
■ **Otsailak 28, osteguna.** Soledad Felloza (Uruguai) eta Alekos (Kolonbia), 16:00etan, H.H.I./E.P.A.-n.
■ **Otsailak 28, osteguna.** Martha Escudero (Mexiko) eta Soledad Felloza (Uruguai), 22:30ean, Orbelan.
■ **Martxoak 1, ostirala.** Carlos Perez Aradros (Errioxa) eta Alekos (Kolonbia), 23:00etan, Kikaran.

■ **Martxoak 2, larunbata.** Maite Franko (Euskal Herria), 11:30ean, Bonberenean.
■ **Martxoak 2, larunbata.** Alekos (Kolonbia) eta Martha Escudero (Mexiko), San Estebanen, 17:00ean.
■ **Martxoak 2, larunbata.** Ahoz kotasunaren gala nagusia artistak guztiek, 19:30ean, Leidorren.
■ **Martxoak 7, osteguna.** Barry Manley (Irlanda) eta Itziar Rekalderen emanaldia, (Euskal Herria), 22:30ean, Orbelan.

2013ko aurrekontuen aurkezpena egingo du Zizurkilgo Udalak

Egoera ekonomikoak erabat baldintzatuta, herritarren parte hartze zuzenarekin osatu dituzte aurrekontuak

J. Telleria Zizurkil

Gaur, asteazkena, Zizurkilgo Udalak 2013 honetarako prestatutako aurrekontuak aurkeztuko ditu herritarren aurrean. Hitzordua Zizurkilgo Atxulondo Kultur

Etxean izango da, 19:00etatik aurrera.

Herritarrentzat zein erakundeentzat aurtengoa urte zaila izan zenaren jakitun, aurrekontu parte hartzaileak landu ditu Zizurkilgo Udalak. Batzordeetan bilduta, lehentasunak finkatu eta doiketen inguruan eztabaidatu dute herritarrek.

Herritarren parte hartzea

Eztabaida horiek baliaituta prestatu dituzte aurrekontuak, eta, beraz, bermatuta geratu da herri-

tarren parte hartze zuzena. Hori dela eta, udalak eskerrak eman nahi dizkie prozesuan parte hartu duten guztiei, eta hurrengo urteko aurrekontuetan parte hartzearen bidean sakontzeko konpromisoa hartzen du.

Prozesua amaitzeko, biharko hitzorduan azalpenak emango dituzte, udalak aurrekontu horiekin egin ahaliko duenaz eta ezingo duenaz. Aurkezpena euskaraz izango da, baina dokumentazioa gazteleraz banatuko da inork jarraitu nahiko balu.

Beti nahi
jaketzea

Garaian
garaiko janariak
Arraikitzen berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



Txakurra eta korrikalariaren erritmoa uztartzea da, kirol honen sekretuetako bat. R. CALVO

Txakurkrosak bigarrenenez hartuko ditu Tolosako kaleak, igandean

Iaz lasterketak izandako harrera ona medio, Tolosaldeko Guhau elkarteak ibilbide bera prestatu du igande honetarako

Lasterketa amaieran Itoitz Armendariz eskoriatzarrak erakustaldia eskainiko du

Itzea Urkizu Tolosa

Bigarren aldiz ospatuko dute, igande honetan, Tolosako txakurkrosa. Guhau elkartearena izango da proba antolatzearen ardura, eta iazko ibilbide bera burutu beharko dute parte hartzen duten txakur nahiz gizon-emakumeek.

Zerbait antolatzen hasitakoan, horrelakoak mantentzea zailena izaten da sarritan, baina Guhau elkarteak kideak oso gustura daude joan den urteko esperientziarekin: «Egia esan iazkoa oso ondo ateratu zen. Lehen aldia izanik, bagenuen guztia behar bezala aterako ez ote zenaren beldur

hori. Baina ederki joan zen dena, eta lasterketa ondoren Zerkasian egin genuen bazkarian ere oso giro ona sortu zen», azaldu du Guhau elkarteak Eneko Agirrek.

11:30ean abiaraziko dute lasterketa nagusia, baina goizean goizetik bertaratutako beharko dute, Trianguloa plazara, parte-hartzaileek, informazio bileretara nahiz dorsalak jasotzera joateko. Igandean bertan, oraindik, izena emateko aukera izango da, gainera: «Normalean ez gara parte-hartzaile asko izaten, 80 inguru, gutxi gorabehera. Hala ere, mugarik ez da izango txakurkrosean, eta beraz, jende gehienak azken unean ematen du izena».

Baldintza bakarra hartu beharko da kontuan, txakurkrosean korri egin ahal izateko: txakurrek, gutxienez, 12 hilabete izan beharko dituzte. Hori abiapuntu hartuta, federatuta dauden korrikalariak 15 euro ordaindu beharko dute izen ematea, eta federatu gabekoak, berriz, 18 euro.

Tolosako txakurkroseko ibilbide nagusia, iazko berbera izango dela azaldu du Eneko Agirrek, eta beraz, irteera nahiz helmuga Trianguloa plazan finkatuko dituzte: «Triangulotik irten, Korreo kalea zeharkatu, eta Gorritiko plazatik aurrera, bide gorritik Samaniego ikastetxeko aparkalekura bideratu dugu ibilbidea, eta Irura aldera joango gara mendiz. Behin hara iritsitakoan, Tolosara itzuliko gara, bide beretik. Gainera, joan-etorrian korrikalarien topo egin ez dezaten guztia prestatuta izango dugu».

Guztira, 11,5 kilometro inguru burutu beharko dituzte parte-hartzaileek, alipaturiko ibilbidean barrena. Entrenamenduak aprobetxatu zituzten iaz, lasterketako zirkuitua zehazteko: «Astero ibilbide desberdin bat adosten genuen, eta egokiena hautatu genuen, benetako entrenamenduetan oinarrituta», dio Agirrek. Lehen saio honen ondoren, ordea, lasterketa laburrago bat izango da, hasiberrientzat eta gaztetxoentzat; 5 kilometro inguru burutu beharko dituzte azken hauek.

Behin lan gogorrenak amaituta, eta haurren gozamenarako, hamar urtetik beherako haurrentzat 200 metroko lasterketa txikia

ere izango da. Jarraian, Eskoriatatik Itoitz Armendariz etorriko da; txakurrekin aritzen da lertan, eta erakustaldi txiki bat egingo du bere txakur taldearekin.

Elkar ulertzearen sekretua

«Egin behar dena zera da, txakurra norberaren korri egiteko estilora moldatu», dio Eneko Agirrek. Txakurra eta korrikalariak erritmo bera izatea da, beraz, kirol honen sekretua: «Zure erritmoa azkarra baldin bada, txakurra ere azkarra izan behar du, eta alderantziz».

Animalia eta gizakien arteko elkar ulertze horretan, ordea, bada korri egiteko egokiagoak diren arrazak: «Hori ez da hain argia, edozein txakurrek balio baitu korri egiteko, zure erritmo bera jarraitzen badu. Hala ere, lertan aritzen diren txakurren inguruko informazioa bildu genuen guk; ez txakur nordikoak soilik, nordikoen eta ehiza-txakurren arteko nahasketa direnak. Eta han eta hemen galdetuta, txakur horiek lortzea nahiko erraza izaten da».

Zaleak bilduz doan kirola

18 korrikalarik osatzen dute, Tolosaldeko Guhau taldea, eta beste kirol batzuetan aritutakoak dira gehienak. Jada badute lasterketara animatzera joaten den jarraitzaile taldetxoa ere.

Pixkana zabalitzen ari den kirola da txakurkrosa, eta Gipuzkoan duela pare bat urte jauzi garrantzitsua eman zuten. Erreterian sortu zen txakurkrosean aritzeko Gipuzkoako lehen taldea: Txakurkrosa Oarsoaldean T.O. Gi-

Herrialde nordikoetako garraibidea, kirol bihurtuta

➔ Herrialde nordikoetan leirei tira eginez ibiltzen ziren txakurak, batetik bestera mugitzeko. *Mushing* deritzo jardun horri, eta bertan du jatorria txakurkrosak. Gerritik soka lotu eta txakurrekin batera korri egiteaz gain, *mushing*-ak beste zenbait aldaera ere hartu ditu, bizikletan nahiz eskiekin. Euskaral Herrian, ordea, azken urteotan asko zabaldu da txakurkrosak.

Horren erakusle dira, Gipuzkoan sortu diren taldeak nahiz liga: Euskanikross, Txakurkrosa Oarsoaldean, Ojo eta Guhau. Liga, berriz, jada jokatu dituzten Donostiako, Jaizkibelgo eta Zumaiako lasterketek, eta jokatu dituzten Tolosa, Erreteria eta Oiztango txakurkrosek osatuko dute.

puzkoan, ordea, Erreteriatik kanpo, korrikalari asko aritzen ziren probetan: «Norbera bere gisara entrenatzen aritzen zen, eta batera eta bestera joaten ginen lasterketetara, hemen ez zen ia probarik antolatzen. Gogoan dut, Soriako (Espainia) lasterketa batean, lehen 10 sailkatuetatik 8 gipuzkoarrak ginela. Egoera honen aurrean, zerbait egin beharra zegoela erabaki genuen».

Erreteriatiko talde hartan aritzen zen Eneko Agirre, eta eurek antolatzen zuten lasterketako korrikalari guztien helbide elektronikoak eskuratu zituztenean hasi ziren lanean, txakurkrosa Gipuzkoan hedatzeko: «Bakoitzari mezu bat bidali genion, bilera



Zure erritmoa azkarra baldin bada, txakurra ere azkarra izan behar du, eta alderantziz»

«Batera eta bestera joaten ginen lasterketetara, hemen ez zen probarik antolatzen»

ENEKO AGIRRE
Guhau taldeko kidea

handi bat antolatzeko, eta handik talde berriak ateratu ziren, bailaran bailarakoak. Guhau orduan sortu zen, eta Tolosaldean bizi garenok elkartzen gara bertan».

Entrenamendu desberdinak egiten dituzte, norberaren lan ordutegia nahiz prestakuntzaren arabera: «Zonalde berean bizi direnek askotan entrenatzen dute elkarrekin, eta urrutitago bizi direnak batzuetan etortzen dira entrenatzera. Saio gehienak, hala ere, bakarka egiten ditugu, eta astean behin edo bi astez behin aritzen gara taldeak».

● tolosa@hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak KAZETARIA behar du ordezkapen bat egiteko eskakizunak:

- Kazetaritzan edo Euskal Filologian lizentziatua
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea

kontutan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta kotxea izatea

Curriculum-a bidali helbide honetara otsailaren 22a baino lehen tolosaldean@hitza.info

Urak bere bidea topatzen ez duenean

Euriteen ondorioz mendietan pilatu den ur kopuru handiak luizi eta lur mugimendu ugari sortu ditu

Iñigo Terradillos

Gipuzkoako Foru Aldundiak mila ekintza baino gehiago izan ditu azken hilabeteen, mendi-hegalek eragindako lur-jauziengatik eta lur mugimenduengatik. Horiek, nagusiki, luraren biguntasun maila altuaren ondorioz sortuak izan dira, eta lurra hainbeste bigundu izanaren ardura bota duen euriarengan jar daiteke. Hainbat herritarrek euren buroa arriskuan ikusi dute, kalte material handiak jasan dituzte, eta eguneroko jarduera oztopatua izan dute. Gipuzkoako landa eremuan bizi diren ehunka herritarrei gertatu zaie, tartean, tolosaldear askori. Hain zuzen ere, Tolosaldekoa izan da kasurik ikusgarrienetakoa, Abaltzisketako lartza baserriko 80 urteko gizonetako helikopteroz erreskatatu behar izan zutenekoa.

Urak bere bidea behar du, eta bide hori egin ezean, bera izaten da irekitzen duena. Hor legoke guztiaren gakoa. Horren gainetik edo aurretik, ordea, uraren mailari erreparatu behar zaio, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldunditik azaldu dutenaren arabera, «egoe-ra ezohikoa izan da, azken 50 urteetan botatako euri kopururik handiena bota baitu azken asteetan».

Aldundiaren Ur Baliabideen sailleko eta Landa Garapena eta Nekazal Egitura sailleko teknikari bana bertaratuta dira lur jauziak gertatu diren lekuetara, balantzea egin asmoz. Kasuistika askotarikoak diren moduan, sortutako arazoengatik eta konponbideak anitzak direla azaldu dute: «Lurragoitiak behera etorri eta eraikinen aurka jo du, errepi-deak estali edo eraman ditu edota bideetan hutsuneak egin ditu;



Abaltzisketako lartza baserriak atzo zuen itxura. I.T.

kasu bakoitza ondo aztertu behar da, eta dagokion konponbidea eman».

Abaltzisketan, ezustea

Abaltzisketako lartza baserrian bizi den sendiak inondik inora espere ez zuen ezustea izan zuen iragan ostegunean. Mendiaren zati bat goitik behera etorri zen, eta baserriaren aurka egin zuen talka. Ertzaintzak lur jauziaren unean etxean zegoen 80 urteko gizonetako helikopteroz artatu beha-

rra izan zuen. Baserriak, berriz, kalte handiak izan ditu, batez ere teilatuan, garajeen eta ukuiluan. Bertako sendiak konponketak egin arte itxaron beharko du berriro ere baserrira bizitzera itzultzeko.

Jon Zubizarreta Abaltzisketako alkateak adierazi duenez, azkar erantzun beharra izan zuten: «baserria salbatzerik nahi bazen berehala sartu behar ziren makinak lohi guztia kentzeko». Baserriko bidea garbitu dute, eta

ura desbideratu egin dute. Orain arazoari konponbidea emateko modu egokiena zein den aztertzen ari dira.

Gisa bereko lur jauzi gehiago ere izan dira, eta Zubizarretaren ustez, aurrerantzean ere izango dira: «Landagunea egun dugun bezala mantendu nahi badugu, zaindu egin behar dugu, mantenu lanak egin, eta horretarako udalok dugun aurrekontuarekin ez da nahikoa, beste erakundeek parte hartzea beharrezkoa da».

Gaztelurako errepedea

Bestalde, Leaburutik Gaztelurako bidea ibilgailuz egiten dutenek ere gertutik ezagutzen dituzte lur mugimenduek eragin ditzaketen oztopoak. Duela hilabete, GI 3881 errepedea hondoratu egin zen zonalde batean, eta iragan asteburuan ere gauza bera gertatu zen beste bi zonaldetan, maila apalagoan izan zen arren. Antza, errepedearen azpian dauden igel-suak dira arazoaren sorburua.



Landagunea egun dugun bezala mantendu nahi badugu, zaindu egin behar dugu»

JON ZUBIZARRETA
Abaltzisketako alkatea

«Ezin dugu errepedea horrela eduki, haustura gehiago sortzeko arriskua baitago»

LUIXA UZKUDUN
Leaburu-Txaramako alkatea

Ur kopuru handia erori zenez, mendi hegalek behera egin zuen, eta irtenbidea hori gelditzea izango da. Horretarako, kontrahormak egingo ditu Foru Aldundiak. Luixa Uzkudun Leaburuko alkateak azaldu duenez, «ezin da luza-roan eduki horrela errepedea, haustura gehiago gertatuko direlako». Uzkudunek esandakoaren arabera, «Aldundiak errepedearen bi alboetan dauden eremuak beharko ditu obrak egiteko, eta une honetan lur jabeekin ari dira negoziatzeko». Bada, aurreikusitakoaren arabera, datorren astean jarriko lituzkete errepedea konpontzen hasteko makinak martxan.

Ezin da jakin saihestu daitezkeen hondamenak diren ala ez. Gu-txiago, kontuan hartuta ezohiko ezaugarri meteorologikoak izan direla horiek eragin dituztenak. Hori bai, mendien eta bideen mantentze eta zaintza lanak beti direla onerako argi dago.

● tolosaldean@hitza.info

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



GOIZA	LAINTUTIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	14°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzalea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrau, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurak



Urte askoan!

Anartz Estebez Sagastume

(Alegia). Gaur urtebete!

Zorionak Amezketa aitona
Julian eta amona Maria Jesusen
partetik. Muxu handi bat.

AGURRAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

●●●● agurak

Irudia Tolosa



BAIGURATIK HALTZAMENDIRA, IBILIAN

Alpino Uzturre elkarteko kideek mendi irteera egin zuten, igandean. Oraingoan, Lapurdi eta Behe Nafarroako lurretan ibili ziren. Luhusotik abiatu ziren, eta irudian Baigura mendian daude mendizaleak, Lapurdi eta Nafarroa Beherea arteko mugan. Ondoren, Haltzamendi tontorrerako

bidea egin zuten, eta bertatik Ortzaizera jaitsi ziren, Nafarroa Behereara. Donibane Garazin geldialdixoa egin eta gero, Tolosara itzuli ziren irteera kide guztiak. «Eguraldi ederra izan genuen, eta paisaia paregabeak ikusi ahal izan genituen», adierazi dute kideek. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Eguneakoa: Ignacio Olarreaga, Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Jesus Maria Etxebes-te, Gernikako Arborearen lorategia, 3. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Leitza.** Carrilo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Plaza, M. T. Elbarren 36. Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** I. Euskaltrail eguna egingo dute Ibarra, larunbatean. Gaur da izena emateko azken aukera mezua euskal-trail@gmail.com helbidera idatziz. 20 euro sartu behar dira izen-abizenak jarritz, 2101 008116001307 9116 zenbakian.
- **Tolosa.** Atsedena aisialdi taldeak irteera antolatu du martxoaren 1, 2 eta 3an hernialdera. 12-16 urteko gaztetxoei zuzendua da, eta izena 646 900 551 zenbakira deituz eman behar da. Bihar da azken eguna.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Zabala Sagardotegia

Bi laguntzako bina bazkari edo afari

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Garagartza baserria
Aduna
Tel.: 943 69 07 74
www.rzabala.com



2 Sarasola Sagardotegia

Bi laguntzako bazkari edo afaria

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

Asteasu
Tel.: 943 69 02 83



3 Donostiako Aquariuma

Bi laguntzako bina sarrera

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

www.aquariumss.com



Parte hartzeko deitu edo idatziz: **902-82 02 40** edo sartu hitza.info helbidean **ZOKZETA** atalean.
Hate honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun
TXOKOA hitza info